

## Montehermosok “Bideojokoak eta hezkuntza” jardunaldiak antolatu ditu

**Lau saio izango dira: bi hitzaldi irakasle eta gurasoentzat, eta bi lantegi umeentzat**

Montehermoso kulturuneak —Estíbaliz Cantok zuzentzen duen Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailaren mendekoa— “Bideojokoak eta hezkuntza” jardunaldiak antolatu ditu; horien barruan, alorreko espezialistek hitzaldiak emango dituzte urtarrilaren 18an eta 25ean, irakasle, hezitzaile, guraso eta herritar orori zuzenduta, eta hilaren 19 eta 26an umeentzako lantegiak eskainiko dira.

*“Programaren helburua da —azaldu du Estíbaliz Canto zinegotziak— bideojokoak eta haien ahalmenak ezagutaraztea, baita erabiltzeko eta disfrutatzeko modu osasungarria ere”.*

Bestetik, gaurtik hasita hilaren 18ra arte, hiriko hainbat ikastetxe publiko eta hitzartuek Montehermoson antolatutako zenbait saiotan hartuko dute parte, Hezkuntza Zerbitzuarekiko lankidetzaren bidez. Erabilera, abusua eta adikzioaren arteko ezberdintasuna ikasteaz gain, aisialdia kudeatzeko behar diren tresnak eskuratuko dituzte.

### **Egitaraua:**

#### **Urtarrilak 18, 19:00.**

- Hitzaldia eta mahai-ingurua: “Nola ikasi bideojokoekin jolasten?”. Carlos González Tardón.
- “*Animal Hero Universe*-ren bidaia”. Down sindromea duten pertsonen gaitasun kognitiboak hobetzeko bideojoko terapeutikoa da hori. Yolanda Peregrín eta Silvia Quera.

#### **Urtarrilak 19, 11:30-13-30.**

- Lantegia: “Zeure abentura sortu”, Yolanda Peregrín eta Silvia Queraren eskutik.
- *Animal Hero Universe*-n agertzen diren pertsonaietan oinarrituta ipuin eta istorio dibertigarriak asmatuko dira.
- 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzat.
- Aldez aurretik izena eman behar da. Plaza-kopuru mugatua. Informazioa eta izen-emateak: 945 161830 / [info.montehermoso@vitoria.gasteiz.org](mailto:info.montehermoso@vitoria.gasteiz.org)

#### **Urtarrilak 25, 19:00.**

- Hitzaldia eta mahai-ingurua: “Ikastea, hausnartzea eta dibertimendua bideojoko komertzialen bidez”. Rut Martínez Borda.

- “De Fobos y Deimos”. Bideojokoen bitartez LGTBIfobiari aurre egitea. Alexander Rodríguez.

### **Urtarrilak 26, 11:30-13-30.**

- Lantegia: “De Fobos y Deimos jokatzen”, Alexander Rodríguezen eskutik.
- Parte-hartzaileek Jokin eta haren lagunak ezagutuko dituzte eta haien bi aurkarien kontra borrokatzen lagundu beharko diete: beldurra eta gorrotoa ezezaguna denari.
- 11 eta 14 urte bitarteko haurrentzat.
- Aldez aurretik izena eman behar da. Plaza-kopuru mugatua. Informazioa eta izen-emateak: 945 161830 333

### **Bideojokoen gunea Mediatekan**

Azkenik, bideojokoak zabaldu eta ezagutzeko gunea egonkorra eratzen ari dira Montehermosoko Mediatekan. Lau terminal eskainiko dira, aldizkari espezializatuak eta nobela grafikoak. People&VIDEOGAMESen fundatzaile Carlos González Tardón arduratu da bideojokoak hautatzeaz, baita proiekturako aholkularitzaz ere.

Bitartekari batek jokoaren ezaugarriei eta erabiltzeko adin gomendatuari buruzko informazioa emango die interesdunei; PEGI kodea (Jokoei buruzko Informazio Paneuroparra) erabiltzen da jokoak adinen arabera sailkatzeko.

## Montehermoso organiza las jornadas “Videojuegos y Educación”

**Las jornadas serán cuatro, dos talleres dirigidos a profesorado y progenitores, y dos talleres para niñas y niños**

El Centro Cultural Montehermoso, dependiente del Departamento de Cultura, Educación y Deporte que dirige Estíbaliz Canto, ha organizado las jornadas “Videojuegos y Educación” en el que profesores/as, educadores/As, progenitores y ciudadanía en general podrán disfrutar de conferencias impartidas por especialistas de este ámbito, los días 18 y 25 de enero, y los y las más pequeños/as podrán participar en los talleres del 19 y el 26.

*“El objetivo del programa –ha señalado la concejala Estíbaliz Canto- es dar a conocer qué es un videojuego, sus potencialidades, así como su uso y disfrute de forma saludable”.*

Además, desde hoy mismo y hasta el día 18, en colaboración con el Servicio de Educación, varios centros públicos y concertados de la ciudad participarán en una serie de sesiones impartidas en Montehermoso. En estos talleres, además de aprender la diferencia entre uso, abuso y adicción, se adquirirán las herramientas necesarias para gestionar el tiempo de ocio. Contará con la participación de más de 200 menores de edad.

### **Programa:**

#### **18 de enero, 19:00.**

- Conferencia y coloquio: “¿Cómo se aprende jugando con videojuegos?”. Carlos González Tardón.
- “El viaje de *Animal Hero Universe*”. Un videojuego terapéutico para mejorar las capacidades cognitivas en personas con síndrome de Down. Yolanda Peregrín y Silvia Quera

#### **19 de enero, 11:30-13-30.**

- Taller “Crea tu propia aventura” con Yolanda Peregrín y Silvia Quera.
- Se inventarán cuentos e historias muy divertidas a partir de los personajes de *Animal Hero Universe*.
- Dirigido a niños y niñas de 8 -11 años.
- Con inscripción previa. Plazas limitadas. Información e inscripciones: 945 161830 / [info.montehermoso@vitoria.gasteiz.org](mailto:info.montehermoso@vitoria.gasteiz.org)

### **25 de enero, 19:00.**

- Conferencia y coloquio: “Aprendizaje, reflexión y diversión con videojuegos comerciales”. Rut Martínez Borda
- “De Fobos y Deimos”. Combatiendo la LGTBIfobia a través del videojuego. Alexander Rodríguez

### **26 de enero, 11:30-13-30.**

- Taller Jugando “De Fobos y Deimos” con Alexander Rodríguez
- Se conocerá a Jokin y sus amigos y habrá que ayudarles a luchar contra sus dos enemigos: el miedo y el odio hacia lo diferente.
- Dirigido a niños y niñas a de 11-14 años.
- Inscripción previa. Plazas limitadas. Información e inscripciones: 945 161830 / [info.montehermoso@vitoria.gasteiz.org](mailto:info.montehermoso@vitoria.gasteiz.org)

### **Espacio de videojuegos en la Mediateca**

Por último, la Mediateca de Montehermoso está creando un espacio permanente para la difusión y el conocimiento de los videojuegos. Esta sección dispondrá de cuatro terminales, revistas especializadas y novelas gráficas. La selección de los videojuegos ha sido comisariada por el fundador de People&VIDEOGAMES, Carlos González Tardón, que se ha encargado de las labores de asesoría para este proyecto y que cuenta con títulos como Los Rios de Alice, Titan Souls, Papers Please, Never Alone, entre otros, videojuegos indies y/o con alto contenido cultural.

Una mediadora informará de las características del juego y la edad recomendada para su uso a las personas interesadas, según el código PEGI, el sistema de clasificación por edades establecido por la organización ‘Información Paneuropea sobre Juegos’.